

Zangoza / 2023

KULTUR AGENDA

abendua



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CAJAS DE CULTURA VALLESANTORO
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia / Kultura-Etxea

Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia: astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko ordutegia: asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Tfnoa:** 948 870 251.

Gonbidapenak hartzea: Gehienez 6 sarrera jaso ahal izanen dira pertsona eta jarduera bakoitzeko. Sarrerak ez dira zenbakituak, publikoa iritsitako ordenaren arabera eseriko da. Gonbidapenak abenduaren 1etik aurrera jaso ahal izanen dira Kultura-Etxean asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870251 telefonora deituz edo infocultura@sanguesa.es helbidera idatziz.

Abenduaren 24an, 25ean eta 31n Kultura-etxea itxita egonen da.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es

Puedes seguir nuestra agenda cultural en Facebook, Instagram y en www.sanguesacultura.es

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Sarrerak hartzea: abenduaren 1etik aitzina, Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Telefonoa: 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan: Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Telefonoa:** 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izango du, ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko ikuskizunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

Beharapenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoa badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunaz hobeki gozatzeko ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoa mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman. Datuak babesteko legea honakoetan kontsultatzen ahal duzu: www.sanguesa.es

KULTUR AGENDA

abendua



- | | | | |
|----|----|---|----------|
| 1 | Az | Erakusketa "Mentiras y realidad" (abenduaeren 17ra bitarte) | 4. Orr. |
| | Az | Zangotzarra aldizkariaren aurkezpena | 7. Orr. |
| | Az | Horizonte Elkarteko Errondaila eta Koruaren kontzertua | 7. Orr. |
| 2 | Og | | |
| | Og | | |
| 1 | Os | | |
| 2 | La | | |
| 3 | Ig | Nafarroaren Eguna. Oibarko Banda Kontzertua | 7. Orr. |
| 4 | Al | | |
| 5 | As | | |
| 6 | Az | Liburuaren aurkezpena "Nicolás Navallas, Sangüesa en la memoria de un hojalatero" | 10. Orr. |
| 7 | Og | | |
| 8 | Os | | |
| 9 | La | Tailerrak «Gabonetako apaingarriak» | 8. Orr. |
| 10 | Ig | Zinea. "Super Mario Bros. La película" | 6. Orr. |
| 11 | Al | | |
| 12 | As | Ipuin-kontalaria. "Betiko ipuinetaz asperturik" (euskara) | 6. Orr. |
| 13 | Az | | |
| 14 | Og | Musika Eskolako ikasteen kontzertua | 8. Orr. |
| 15 | Os | | |
| 16 | La | Nora Abesbatzaren Eguberriko kontzertua | 9. Orr. |
| | La | Bakarriketa. «Chungo» | 5. Orr. |
| 17 | Ig | Desfase Scape Room | 10. Orr. |
| 18 | Al | Musika Eskolako ikasteen kontzertua | 8. Orr. |
| 19 | As | | |
| 20 | Az | Ipuin-kontalaria. "Cuentos colgantes" (gaztelania) | 6. Orr. |
| 21 | Og | Erakusketa "Iraganeko gobonetako ekitaldiak" (urtarrilaren 7ra bitarte) | 4. Orr. |
| | Og | Eguberriko haur-lanen erakusketa (urtarrilaren 7ra bitarte) | 4. Orr. |
| | Og | Musika Eskolako ikasleen gabonetako kontzertua | 9. Orr. |
| 22 | Os | Gabon-kanten kalejira | 9. Orr. |
| 23 | La | Pregoa, jaiotza bedekinatzea eta irekitzea | 9. Orr. |
| 24 | Ig | Olentzero | 9. Orr. |
| 25 | Al | | |
| 26 | As | Txotxongiloak. "La Vía Láctea" | 5. Orr. |
| 27 | Az | | |
| 28 | Og | Tailerrak «Nire lehenbiziko belarritakoak diseinatzen» | 8. Orr. |
| 29 | Os | | |
| 30 | La | Udal Banda Elkartearen Eguberriko kontzertua | 10. Orr. |
| 31 | Ig | | |

Azaleko irudia: "Chungo". Luis Zahera.

**KULTURA ARLOTIK OSASUN HANDIA OPA DIZUEGU
ETA 2024 KULTURA HANDIZ BETERIK ETORTZEA.**

Erakusketak



«Mentiras y realidad»

NAFARROAKO MUNDUKO MEDIKUAK

ABENDUAREN 17RA BITARTE

Erakusketak prostituzioaren alde ez hain nabarmena erakutsi nahi du: prostituitzaile deitzen diogun demandatzailea.

Prostituzioari buruz egiten diren azterlanen eta ikerketen % 1ek soilik ditu helburu emakumeak «erosten» dituztenak; hala ere, haiek gabe, ez litzateke prostituzio sistematik egonen.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.



«Iraganeko gabonetako ekitaldiak»

ARGAZKI ERAKUSKETA.

HENRIKE II.a ALBRETEKOA KULTURA-TALDEA

**ABENDUAREN 21ETIK
URTARRILAREN 7RA**

Henrike II.a Albretekoa Kultura-taldeak, oraingoan, Zangozako Gabonetan urteetan zehar egin diren ekitaldi eta jarduerak erakusten dituen argazki erakusketa bat proposatzen digu.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Behealdeko Erakusketa Aretoa

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua



«Eguberriko haur-lanen erakusketa»

**ABENDUAREN 21ETIK
URTARRILAREN 7RA**

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzaileak: Otik 3 urtera bitarteko Zentroa, Luis Gil Ikastetxe Publikoa, Zangozako Ikastola eta Luna Haur-zentroa.



Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia:

asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Artes Eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



BAKARRIZKETA

«Chungo»

LUIS ZAHERA

LARUNBATEAN, ABENDUAK 16

Aktore eta bakarrizketari galiziarrek «Chungo» izeneko umorezko azken ikuskizuna aurkeztuko du.

Zahera aktore bikaina dela inork ez du zalantzan jartzen. Baina oraingoan bere alderdirik komikoenaz gozatuko dugu, non anekdotaz beteriko umorista bat ezagutuko dugun, guztiak umorez beteak, gehienak norberaren bizipenetan oinarrituak, bai familiakoak, bai farandularen mundu ero honen barruan bizi izandakoak.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 80 minutu.

Ordua: 20:00.


Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilako sarrerak: 10 €.

Sarrerak gazte txartelarekin: 5 €.

Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita ere, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



TXOTXONGILOAK ETA OBJEKTUEN ANTZERKIA

«La Vía Láctea»

EL CAU DE L'UNICORN

ASTEARTEAN, ABENDUAK 26

Txotxongilo eta aktore handien ikuskizun musikala, edertasun bisual eta musikal handiko argi beltzean. Kontu handiz tratamenduan eta erabilitako lengoaiari, aniztasunari, autoestimuari, beldurrei eta abarri buruz mintzo da. Sari eta izendapen ugari jaso ditu, eta hunkitu egiten ditu bai txikiak, bai haien laguntzaileak.

Ikusleak: sendiak eta haurrak. **Iraupena:** 60 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



Zinea



«SUPER MARIO BROS. LA PELÍCULA»

IGANDEAN, ABENDUAK 10

Lur azpiko matxura batean lanean ari direlarik, Brooklyngo iturginak, Mario eta bere anaia Luigi, hodi misteriotso batean barrena doaz mundu magiko berri batera. Baina anaiak banantzen direnean, Mariok misio epiko bati ekin beharko dio Luigi aurkitzeko. Toad tokiko barrengorriaren laguntzarekin eta Peach printzesa Barrengorri Erresumako gerlari liderraren borroka oinarritzko ezagutza batzuekin, Mariok bere barnean duen botere guztia deskubrituko du.

Ikusle guztiendako. 9 urtetik beherakoek helduekin joan behar dute.

Iraupena: 92 minutu. **Ordua:** 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa. **Sarrerak:** 3 €.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ipuin-kontalaria



«Betiko ipuinetaz asperturik»

(Euskarazko ipuin kontalaria)

JAIONE URTASUN

ASTEARTEAN, ABENDUAK 12

Betiko ipuinak gogoan izanda ere beti aukera dago dena aldatzeko eta buruz gora jartzeko. Ipuin dibertigarriak eta parte hartzeko aukera ederra.



«Cuentos colgantes»

(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)

SERGIO DE ANDRÉS

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 20

Udazkenean liburu baten orrietan kulunkatzen diren ipuinak, askatu eta gu amets eginarazteko zorian.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Ordua: 18:30. **Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Nafarroaren Eguna Ospatzea



OIBARKO BANDA

IGANDEAN, ABENDUAK 3

Ordua: 12:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrera doan edukiera bete arte. Ez da beharrezkoa izanen alde aurretik gonbidapena hartzea. Ateak 11:30ean irekiko dira.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.

Zangozako erakunde kulturalen ekitaldiak



HORIZONTE ELKARTEKO ERRONDAILA ETA KORUAREN KONTZERTUA

OSTIRALEAN, ABENDUAK 1

Ordua: 20:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Doako sarrera: gonbidapenak Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean hartu ahal izanen dira, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Laguntzailea: Zangozako Udala



ZANGOTZARRA ALDIZKARIAREN AURKEZPENA

OSTIRALEAN, ABENDUAK 1

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Hitzaldi Aretoa.

Antolatzailea: Henrike II.a Albretkoa Kultura-taldea.

Musika Eskolako kontzertuak



Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolako ikasleen Ganbera-musikako kontzertua

**OSTEGUNEAN, ABENDUAK 14 ETA
ASTELEHENETAN, ABENDUAK 18**

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Tailerrak



«Gabonetako apaingarriak»

LARUNBATEAN, ABENDUAK 9

Tailer honetan hurrek euren eskuekin gabonetako apaingarriak modelatuko dituzte. Buztin polimerikoa erabiliz, Gabonetako zuhaitz txikiak, apainduko dituzten bolak, elurrezko panpinak eta bururatzen zaien guztia osatuko dute! Eskolaren amaieran apaingarriak labetuko ditugu, beren artelanak etxera eramateko kutxa apaintzen duten bitartean!

Irakaslea: Isabel Jaso, artista plastikoa

Partaide-kopurua: 10.

Partaideak: 4tik 10 urtera. 7 urte baino gutxiagokoei helduek lagundu behar diete.

Izen-emateak: doakoa 948 870 251 telefonoan edo infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.



«Nire lehenbiziko belarritakoak diseinatzen»

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 28

Gure lehen belarritakoak buztin polimerikoz diseinatuko ditugu. Kolorea, forma, ehundura aukeratuko ditugu. Ebakiko dugu eta apaingarriak paratzen ikasi. Baita materialaren gainean trikimailu asko. Labetu, muntatu eta geure eskuekin egindako lehen belarritakoak jantziko ditugu!

Irakaslea: Isabel Jaso, artista plastikoa.

Partaide-kopurua: 10. **Partaideak:** 11 urtetik 17 urtera.

Izen-emateak: doakoa 948 870 251 telefonoan edo infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Eguberria



Nora Abesbatzaren Eguberriko kontzertua

LARUNBATEAN, ABENDUAK 16

Ordua: 19:30.

Lekua: Aita Kaputxinoen Eliza.

Antolatzailea: Nora Abesbatza.



Zangozako «Juan Francés de Iribarren»

Musika Eskolaren Eguberriko Kontzertua

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 21

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Antolatzailea: Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.



Musika Eskolako Bandaren eta

Udal Banda Elkartearen Gabon-kanta kalejira

OSTIRALEAN, ABENDUAK 22

Zangozako Musika Eskolako bandak eta Udal bandak Zangozako karriketan zehar ibiliko dira hiriko alde zaharreko plaza nagusietan geldialdia eginez.

Ordua: 19:30.

Antolatzailea: Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.



Pregoa, jaiotza bedeinkatzea eta irekitzea

LARUNBATEAN, ABENDUAK 23

17:30 Nora Abesbatza Arkupeetatik aterako da eta Abatetxeko plazarantz abiatuko da ibilbidetik gabon-kantak abesten.

18:00 jaiotza bedeinkatzea eta irekitzea eta pregoia Erregeen Misterioa elkarteko batzarra uzten dutenen eskutik. Pregoi horrekin Eguberriari ematen zaio hasiera Zangozan. Ekitaldian metal eta gaita taldeak parte hartuko du.

Amaieran, ogi-apurren dastaketa herrikoia.

Lekua: Abatetxeko plaza.

Antolatzailea: Erregeen Misterioa Elkartea.



Olentzero

IGANDEAN, ABENDUAK 24

17:30 Arkupeetako plazan txokolatada, gaztainak, bizkotxoa eta ardo errea.

18:15 Praurantz kalejira joaldunekin eta txistulariekin.

18:35 Joaldunen deia Olentzero eta Mari Domingiren bila joateko.

Eguberria



18:45ean Olentzero eta Mari Domingiri harrera Praun, «zortziko Piudo» dantzatzea.

19:15ean Olentzero eta Mari Domingiri harrera Arkupeetako plazan. Dantzak, argazkiak...

20:30ean Olentzerori eta Mari Domingiri agurra eta saskien zozketa.

Olentzero eta Mari Domingiren harreran eta festan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Antolatzaileak: Zangozako Ikastola, Luis Gil Ikastetxeko APYMA, Kurriños, Luna Haur-eskola eta Bi Haizetara Euskara Taldea.



Udal Banda Elkartearen Eguberriko kontzertua

LARUNBATEAN, ABENDUAK 30

Ohiko kontzertua, non taldeak bandarako jatorrizko musika joko duen, bai eta soinu-bandak eta orkestra-musika ere, beste musika genero batzuen artean. Egitarau honetan, Alfred Reeden flauta bakarlari eta bandarako dibertimendua eta garai hartan zuzendaria zen Jesús Vallejosek 1915ean bandarako egokitutako obra nabarmentzen dira. Adorea, aldakortasuna eta kontrasteak izanen dira kontzertuaren ezaugarri nagusiak.

Zuzendaria: Imanol Blasco.

Ordua: 20:00. **Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 5 €. **Antolatzailea:** Udal Banda Elkartea.

Beste zenbait ekitaldi



LIBURUAREN AURKEZPENA

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 6

«Nicolás Navallas, Sangüesa en la memoria de un hojalatero»

Egileak: Fernando Hualde eta Joseba Urretavizcaya.

Ordua: 12:30. **Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.



DESFASE SCAPE ROOM

IGANDEAN, ABENDUAK 17

Orduak: 16:30ean, 18:00etan eta 19:30ean.

Lekua: Gazteleku. **Prezioa:** 2 euro.

Izen-emateak: udal bulegoetan abenduaren 17a bitartean.

Partaide-kopurua: 8 lagun gehienez saio bakoitzean.

Antolatzaileak: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietarako Batzordea eta Zangozako Eskualdeko Mankomunitatea.